

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

166/2026 Foru Agindua, martxoaren 18koa. Interes publikoa adieraztea Zambranako udalerriko Zabalateko kontzejuko 62-2-96 lurzatian (lurzoru urbanizaezin sailkatua) hondakin uren araztegi bat instalatzeko proiektuari

2025eko abenduaren 2an, Arabako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoan Zambranako Udalaren eskaera sartu zen, zeinak eskatzen baitzuen Zabalateko herrian hondakin uren araztegi bat instalatzeko proiektuaren interes publikoa adierazteko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Euskal Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren arabera; HUA 62-2-96 katastro erreferentzia duen lurzatian kokatzea proiektatzen da, Zambranako udal mugarteko lurzoru urbanizaezinean.

Eskaerarekin batera, udaleko arkitekto aholkulariaren txosten teknikoa eta Zabalateko Urbanizazio Proiektua izeneko dokumentua aurkeztu ziren.

Haren memorian jasotzen denez, herriko azpiegitura batzuk zein egoeratan dauden kontuan hartuta, Zambranako Udalak, Zabalateko Administrazio Batzarrak eskatuta, espediente bat izapidetu du esku hartzeko edateko ura banatzeko azpiegituren sarean, euri ur batzuen saneamenduan, argiteria publikoan, kaleen zoladuran, telefonian eta hondakin uren saneamendu sarean.

Azken horri dagokionez, urbanizazio proiektuak jasotzen du gaur egun arazketa edukiera txikiko hobi septiko batean egiten dela, eta araztegi berri bat instalatzea aurreikusten dela. Araztegi horrek iragazketa biologikoko sistema bat izango du 75 biztanleko populazio baliokidearentzat, eta 220 litroko isurketa hornidura izango du biztanle eta egun bakoitzeko. Gainera, kokapena aldatuko da eta Zambranako udalerriko 62-2-96 katastro erreferentzia duen lurzatian instalatuko da.

Udaleko arkitekto aholkulariak egindako txostenean jasota dago lurzati hori lurzoru urbanizaezin sailkatuta eta 12. zona kalifikatuta dagoela: nekazaritza balio bereziko nekazaritza eremua da, eta bertan baimenduta daude onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Landa eremuan lekutu behar direnak, zientziari, topografiari, geografiari edo irakaskuntzari lotutako arazoirengatik zein antzeko beste edozein arazoirengatik, hautaturiko lursailen nahitaez lotuta egon behar duten jarduerak direlako, edo lehen mailako baliabideei zerbitzua ematen dietelako.

- Hirigintza Plangintzako Arautegiaren 76.3.a) artikuluan jasotzen diren kasu horietako bat ez izatea.

- Ez dute isuririk sortu behar (edo dagokion arroaren organoaren baimena aurkeztu behar dute), edo zuzenean lotu behar dituzte estolderiaren sare orokorretara.

- Ezin dute ez higidurarik, ez lurren kalitate galerarik eragin.

- Ezin dira akuiferoak babestearekin bateraezinak izan.

Txostenak gaineratzen du eskatutako erabilera baimenduta dagoela, betiere onura publikokotzat eta interes sozialekotzat jotzen bada.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskumena du aztergai den espedientea ebazteko, bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak xedatutakoarekin.

Lurzoruen eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzoruan, "salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduerak eta erabilerak batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira".

Bat etorritik 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu "aplikatzekoa den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratuak zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeiguneko jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Bigarrena. Urtarrilaren 21eko 19/2026 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespina ematea eta jendaurrean ipintzeko 20 eguneko epea irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 15. zenbakian egin zen, 2026ko otsailaren 4an. Horretarako emandako epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hirugarrena. Proiektuaren interes publikoa dela eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 86.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, uren arazketa toki erakundeentzat funtsezkotzat eta erreserbatutzat jotako zerbitzuak bat da. Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien berezko eskumenen artean ezartzen du zerbitzuak ematea hiri erabilerako uraren ziklo integrarean. Arlo honen barruan sartzen dira herriguneetako hiriko hondakin uren eta euri uren saneamendua edo bilketa eta hiriko hondakin uren arazketa. Era berean, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen 11/1995 Foru Arauaren 7. artikuluan, erakunde horiei tradizioz dagozkien eskumenen artean hau jasotzen da: "Erakundearen jabetzakoak izanik, jendeak erabiltzen dituen instalazioak eraiki, handitu, kontserbatu eta konpontzea, bai eta ...Kontzejuaren barrutian, interes berezia duten obrak (...) burutzea eta bestelako zerbitzuak ematea ere".

Bestalde, EAEko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialak, 42. artikuluan, landa lurzoruan baimendutako erabileren artean ezartzen ditu komunitate ekipamenduetarako instalazioak, publikoak edo pribatuak, beren izaera eta ezaugarriengatik landa ingurunean kokatu behar diren zerbitzuak ematera bideratuak, aldezturik onura publikoko edo gizarte intereseko adierazkiak, eta berariaz adierazten du zerbitzu publikoen ekipamendua, "beren ezaugarri funtzionalengatik, bateraezina izan baitaitezke batez ere beste erabilerak batzuetarako diren zonetan ezartzeko".

Kasu honetan, azpiegituraren berezko ezaugarriek zehazten dute landa ingurunean kokatzeko beharra.

Horrenbestez, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikoa adieraztea Zambranako udalerriko Zabalateko kontzejuko 62-2-96 lurzatian (lurzoru urbanizaezin sailkatua) hondakin uren araztegi bat instalatzeko proiektuari.

Bigarrena. Adierazpen horrek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, bi hilabeteko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio egintza eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin. Interesdunek egoki jotzen duten beste edozein errekurtsu ere aurkez dezakete.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 18a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA